

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2024)

*euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
gradu- eta master-amaierako lanak saritzeko*

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu- eta master-amaierako zortzi lan saritzeko deialdia argitaratu zuen martxoan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa aukeratu izana saritzea da deialdi honen helburua.

Denera, sei eskaera aurkeztu dira deialdi honetan, gradu-amaierako hiru lanen egitasmoekin eta master-amaierako beste hiru lanen proposamenekin batera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikerketaren helburuen egokitzapena Mintzolak zehaztuta dituen iker-lerroetara.
- GRAL/MALen kalitatea: ikerketa-gaia eta helburua ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatua egotea. Lana argi eta ondo idatzita eta egituratua egotea.
- GRAL/MALen garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan ildoak irudikatzea.

Epaimahaiak ondoko lau egitasmoak saritzea erabaki du:

1. *Hitz funtzional goiztiarrak. Haur euskaldun elebakarren hizkuntzaren jabekuntzaren azterketa.*

Egilea: Garazi Domínguez Mezquita

2. *Euskal hizkeraren erritmoa.*

Egilea: Maddi Ormazabal Sudupe

3. *Hezkuntza formalean, aisialdi-antolatua eta ludikotasuna ardatz, euskarazko hizkera informalearen ikas-irakaskuntza. Zailtasunen gainetik onura anitz.*

Egilea: Odei Guirado Irasuegi

4. *Nokaren higatzea*

Egilea: Ana Jaunarena Mendiondo

Bilbon, 2024ko maiatzaren 30ean.